# telebista ◆ irratia

## Mitxel Sarasketa preso ohia

ETB1 • 21:10ean

Mitxel Sarasketa preso ohi eibartarra elkarrizketatuko dute *Bertatik bertara* saioan. Hogei urte egin ditu kartzelan.



## ETB 1

07:00: **Axut.** Lehiaketa.
07:25: **Euskal Herritik.** 'Baztango Okinak Mexikon'.
08:00: **Bizitza izotz artean.** 'Negu izoztua'.
08:35: **Goenkale.** 'Itzal baten bila'.
09:10: **Bertatik Bertara.**
09:50: **Superbat.**
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:00: **Harriketarrak.** 'Frankestari rockero izarra'.
13:30: **Gaur egun.** Albistegia.
14:20: **Goenkale.** 'Itzal baten bila'.
15:00: **Axut.** Lehiaketa.
15:30: **Hamaika korapilo.** 'Haurrak (Berezia)'.
17:05: **Iparraldearen orena.** Guillaume Irigoyenek aurkeztutako saioa.
17:10: **Superbat.** Candy, Candy, Wallace eta Gromit, Supernet, Gabonetako Zinea (Anna, Anna), Euskaraokea.
20:30: **Gaur egun.**
20:55: **ETB Kirolak.** Kirol saioa.
21:10: **Bertatik Bertara.**
21:45: **Goenkale.** Telesaila. 'Ingelesen erara'.
22:30: **Hitzetik Hortzera.** Iñigo Aiestaranek aurkeztutako bertso saioa.
00:35: **Zine Oro.** 'Kramer Kramerren aurka'. Zuzendaria: Robert Benton. Aktoreak: Dustin Hoffman, Meryl Streep, Jane Alexander.
02:15: **Dinastia Gorria.** 'Iraultzaren semeak'.
03:10: **Munduan zehar Orson Wellesekin.**
03:35: **Amaren Etxea.** 'Kontsulta'.
04:00: **Nire bi aitak.** 'Zure ipotxa egia bilatzeko'.
04:25: **Hamaika Korapilo.** 'Zer emango digu 1999ak?'.
05:50: **Ikusgela.**
06:40: **Maite dut nire hiria.** 'Saint Petersburg'.

## ETB 2

08:25: **Del país de los vascos.** 'Agotes'.
08:50: **Hudson Street.** Telesaila.
09:15: **Forum.**
09:45: **Los misterios de Ruth Rendell.**
10:35: **Zinema.**
**El gendarme desconocido.** Zuzendaria: Miguel M. Delgado. Aktoreak: Cantinflas.
12:30: **Remington Steele.** Telesaila.

**13:20**
**La cocina de Pedro Subijana.**



'Spaguettis con colabacín y gambas'.

13:30: **De par en par.**
14:00: **Informacion territorial.** Albistegia.
14:28: **Teleberri.**
15:20: **ETB Kirolak.**
15:50: **Lo que faltaba.**
17:05: **Zinema.**
**Starman: el hombre de las estrellas.** Zuzendaria: John Carpenter. Aktoreak: Jeff Bridges, Karen Allen.
19:00: **Cabalgata de Reyes.**
20:58: **Teleberri.**
21:45 : **La noche de...**
**La Mascara.** Zuzendaria:Chuck Russell. Aktoreak: Jim Carrey, Cameron Diaz.1994.
**Escandalo en el plato.** Zuzendaria: Michael Hoffman. Aktoreak: Sally Field, K. Kline.
01:50: **Lo que faltaba.** Errepikapena.
03:00: **Forum.**

## gaurko filmak

*Ane Muñoz*

**■ ESCANDALO EN EL PLATO.** Michael Hoffman zuzendariak Hollywood inguruan punta-puntakoak diren aktoreak kameraren parean jarri eta umorez bustiriko istorio entretenigarri hau filmatu zuen. Kalitatez ez da oso nabarmena, baina erraz ikusten da, eta merezi du. *Dinastía* eta *Falcon Crest* telesail arrakastatsu eta amaigabe horiei barre egiten dien parodia eroa da, Sally Field eta Kevin Kline ospetsuek protagonizatua.

**■ KRAMER KRAMERREN AURKA.** Robert Bentonen melodrama samur, hunkigarri eta polita, 70eko hamarkadaren amaieran arrakasta handiz estreinatua, euskarara bikoiztuta ikus dezakegu. Bi aktore erakargarri biltzen ditu, hau da, Dustin Hoffman eta Meryl Streep, banandu berri den ezkonbikote gaztearen rolean. Seme txiki bat dute, aurrerantzean senarrak (Hoffmanek) zaindu eta hezi beharrekoa.

**■ LA CORTE DE FARAON.** Musikal umoretsu honek arrakasta handia lortu zuen estreinaldi garaian, baina ez du inolako interesik, luxuzko aktore taldearen partaidetza ez bada. Rol nagusia Ana Belenek antzezten du, Fernan Gomez handia eta Antonio Banderas alboan dituela; emakumea, abeslari fina da, baina antzezle gisa zozo deritzot. Argumentua 40ko hamarkadaren amaierako Madrilen kokatua dago. Antzerki talde batek oso musikal ausarta estreinatzea erabaki du, garaiko zentsura gogorrari jaramonik egin gabe.

**■ EL GENDARME DESCONOCIDO.** Zuri-beltzezko komedia zaharkitu hau Cantinflas komiko mexikarraren jarraitzaileei soilik gomendatuko diet, haren luzimendu hutserako sortu baitzuen Delgado haren ohiko zuzendariak.



ARTXIBOKOA.

**Dustin Hoffman, *Tootsie* filmean.**

### *Dustin Hoffmanen bi lan garrantzitsu*

**■ TOOTSIE.** Sidney Pollacken melodrama goxo eta hunkigarria da, oso entretenigarria eta, hamaikagarren aldiz bada ere, gustura ikusten dena. Dustin Hoffman, ETB1ek eskainiko duen *Kramer Kramerren aurka* filmean protagonistaren rola jokatzen duen aktore bera, emakume dotore batez jantzita azaltzen da oraingoan. Antzezpen polita egiten du, Jessica Lange ilehoriarekin bikote erakargarria osatuta. Gizon batek lanpostu bat lortzeko emakumez janztea erabakiko du; pixkanaka telesaio arrakastatsu bateko aurkezle ospetsu eta maitatua bihurtuko da. Oso gozagarria da.

| | | |
|---|---|---|
| **El gendarme desconocido** | Miguel M. Delgado | 10:35 ETB2 ♠♠ |
| **Un ruiseñor canto en...** | 1979, Ralph Thomas | 11:00 La2 ♠♠♠ |
| **Ruby Bridges** | 1998, Euzhan Palcy | 15:57 C+ (e) ♠♠ |
| **Un pequeño héroe II** | 1996, Lawrence Lanoff | 16:00 T5 ♠♠♠ |
| **Starman: el hombre de las...** | 1984, John Carpenter | 17:05 ETB2 ♠♠ |
| **La colo des gourmands** | 1994, Steven Brill | 20:40 C+ (f) ♠♠ |
| **La fiancée qui venait...** | 1983, Charles Nemès | 20:50 M6 ♠♠ |
| **Dumb and Dumber** | 1994, Peter Farrelly | 20:50 TF1 ♠♠♠ |
| **Tootsie** | Sydney Pollack | 20:55 F2 ♠♠♠♠ |
| **Liberad a Willy II** | 1995, Dwight Little | 21:50 T5 ♠♠ |
| **Vuelve el padre de la novia** | 1995, Charles Shyer | 21:50 TVE1 ♠♠ |
| **La princesa Cisne** | 1995, Richard Rich | 22:00 C+ (e) ♠♠ |
| **La máscara** | 1994, Chuck Russell | 22:20 ETB2 ♠♠ |
| **Suspiros de España y Portugal** | 1994, Jose Luis Garcia Sanchez | 22:40 La2 ♠♠ |
| **La corte de faraón** | 1985, Jose Luis Garcia Sanchez | 22:40 La2 ♠♠ |
| **Mucho ruido y pocas nueces** | 1993, Kenneth Branagh | 23:45 A3 ♠♠♠ |
| **Escándalo en el plató** | 1991, Michael Hoffman | 00:00 ETB2 ♠♠♠♠ |
| **Unidos por el odio** | 1996, Luca Bercovici | 00:15 T5 ♠♠ |
| **Kramer Kramerren aurka** | 1979, Robert Benton | 00:35 ETB1 ♠♠♠ |
| **Daktari** | 1964, Andrew Marton | 01:50 A3 ♠♠ |
| **La Mortadela** | 1971, Mario Monicelli | 03:00 T5 ♠♠♠ |
| **Celos** | 1990, Katheleen Fonmarty | 03:10 La2 ♠♠ |
| **Bambola** | 1996, Bigas Luna | 05:00 C+ (f) ♠♠ |

♠ TXARRA ♠♠ ESKASA ♠♠♠ BALEKOA ♠♠♠♠ ONA ♠♠♠♠♠ BIKAINA

## irratia ◆

Arrate Irratia: FM 87.7 ● Bizkaia Irratia: FM 102.6 ● Bilbo Hiria: 96.0. ● Euskadi Irratia: OM 1.161 ● Euskalerria Irratia: FM 91.4 ● Herri Irratia: FM 99.8 / OM 1224 ● Gure Irratia: FM 106.6 ● Irulegiko Irratia: FM 91.08 ● Segura Irratia: FM 89.2 ● Xiberoko Botza: FM 88.8 ● Xorroxin Irratia: FM 107.5.

**Euskadi Irratia.** *Amerika eta Euskaldunak* saioan, EEBBetako bi kultur eragile elkarrizketatuko ditu gaur Joseba Etxarri saioaren gidariak, Maite Uriagereka eta Idoia Salaburu hain zuzen ere. Uriagereka bermeotarrak Nevadako Elkora ezkondu eta han sortu zuen familia. Salaburu hogeita bi urteko gazteak guraso baztandarrak ditu, baina bera San Frantziskokoa da jaiotzez. Hiri horretan, euskal dantzarien soinu jolea da. Bestalde, Karmelo Etxenagusia Bilboko apezpiku laguntzailea joan zen udan EEBBetara joan zenean egindako elkarrizketa ere entzun ahal izango da.

**Herri Irratia.** *Carta de ajuste* magazinearekin emango zaio hasiera, goizeko 06:00etan, irrati emankizunari. Ondoren, 07:30etan, Mariano Ferrerren *El Kiosko de la Rosi* hasiko da, eguneko gaiak aztertuz, eta 09:00etatik aurrera *Berrikerketa* tertuliari ekingo diote Xabier Oleagak, Joseba Agirretxeak, Mikel Aramendik eta Ramon Ibeazek. 10:00etan *Musutruk* eguneroko magazina hasiko da, Carolina Sainz de Bikuña, Iñigo Arbiza eta Iker Zubimendik gidatutako saioa.